

3. KIROLJOKOAREN ELKARREKIKO APUSTUEN ARAUTEGIA

Elkarrekiko apustua, jakineko lehia batzuei buruz erabiltzaile desberdinek apustu egindako diru-kopuruak gehituta (Haserako funtsa) eta, behin Tele Apostuak-ek berari dagokion komisioa jaso ondoren, gelditzen dena (Funts Banagarria) sari-kategoria desberdinetako apustu irabazleen artean banatzen denean da.

1. Kapituluua: ELKARREKIKO APUSTUETAKO SARI-KATEGORIAK

Elkarrekiko Apustu modalitate bat soilik sari-kategoria bakarrarekin publikatzen denean, saria irabazten duten apustuak asmatutako pronostiko gehien dituztenak dira eta funts banagarria hauen artean banatzen da.

Elkarrekiko Apustu modalitate bat sari-kategoria bat baino gehiagorekin publikatzen denean, Elkarrekiko Apustueta sari-kategoriak handienetik txikienera honela antolatzen dira: 1. mailako sariak, 2. mailako sariak, 3. mailako sariak eta hurrengoak. 1. mailako sariak apustuko pronostiko guztiak asmatzen dituzten apustu irabazleei dagokie; 2. mailako sariak apustuko pronostiko guztiak salbu bat asmatzen dituzten apustu irabazleei dagokie; 3. mailako sariak apustuko pronostiko guztiak salbu bi asmatzen dituzten apustu irabazleei dagokie, eta berdin hurrengoak.

Funts Banagarria, Elkarrekiko Apustu modalitate bakoitzeko ezaugarrien arabera, sari-kategoria desberdinen artean banatzen da aipatu kategorien sarientzako funts gisa. Kategoria jakin bateko Elkarrekiko Apustu irabazle bakoitzarentzako saria zein den jakiteko, kategoriari dagokion funtsa kategoria horretako apustu irabazle kopuruarekin zatitu behar da.

Kategoria baxuago bateko apustu irabazle bakoitzarentzako sarien zenbatekoa inoiz ezin da kategoria handiago bateko sarien zenbatekoa baino handiagoa izan. Horregatik, kategoria bateko apustu irabazle bakoitzarentzako sariaren zenbatekoa hurrengo kategoria baxuago batekoa baino murriztagoa balitz, bi kategoriei zegozkien sariak batu egingo lirateke eta bi kategorietako apustu irabazleen artean denek berdin jasoaz banatuko lirateke. Gehikuntza hau egin eta hala ere bi kategorietako apustu irabazleen sariak hurrengo kategoria baxuago batekoa baino murriztagoa balira, hiru kategoriei zegozkien saritarako funtsak batu egingo lirateke eta hiru kategorietako apustu irabazleen artean denek berdin jasoaz banatuko lirateke, eta berdin hurrengoan ere.

2. Kapituluak: ELKARREKIKO APUSTU MOTAK

Elkarrekiko Apustuak bi motatakoak izan daitezke:

- **OHIKO Elkarrekiko Apustuak:** Hauetan Funts Banagarria sariketako apustu irabazleen artean banatzen da. Hots, sariketa batean kategoria jakin bateko sariaren apustu irabazlerik ez badago, sari horretarako zegoen funts banagarria hurrengo kategoria baxuagoko sariaren funts banagarriari gehituko zaio eta kategoria honetako apustu irabazleen artean banatuko da.
- **Elkarrekiko Apustu BEREZIAK:** Hauetan, sariketaren kategoria jakin batean apustu irabazlerik ez badago, sariak ez dira sariketan bertan banatzen. Sariketan banatu gabe geratu den funts banagarriaren zenbatekoa Elkarrekiko Apustuak modalitate bereberko beste sariketa batzuetako 1. mailako sarientzako den funts banagarria handitzeko erabiliko da.

Bermatutako Funtsa duten Elkarrekiko Apustu Bereziak: Hauetan, 1. mailako Sariak Bermatutako Funtsa deitzen den gutxieneko zenbateko bat izango duen funts banagarria izango duela bermatzen du Tele Apostuak-ek eta, horrela, 1. mailako Sariarentzat diren jokaturako diru-kopuruetatik datorren funtsa bermatutako gutxieneko zenbatekora ez bada iristen, Tele Apostuak-ek, bermatutako diru-kopuru horretara iritsi arte, bere burua zenbateko hori osatu arteko diru-kopurua ipintzera derrigortzen du.

3. Kapituluua: KIROLJOKOA SISTEMAKO ELKARREKIKO APUSTU MODALITATEA

"KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"ko apustu modalitate bakoitza apustuaren izendapen komertzial batekin parekatzen da. Apustu modalitate bakoitzaren ezaugarriak hauek dira:

- Dagokion Elkarrekiko Apustu mota.
- Elkarrekiko apustuaren deskribapena.
- Funts Banagarriaren kalkulurako komisioa.
- Onartzen diren sari-kategoriak eta kategoria bakoitzean saria eskuratzeko eskubidea izan dezaten apustuek izan beharreko asmatutako pronostikoak.
- Sari-kategoria bakoitzari funts gisa dagozkion Funts Banagarriaren ehunekoak.
- Bermatutako Funtsa, hala badagokio.
- Apustu bakoitzeko zenbatekoa.

"KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k eskaintzen dituen Elkarrekiko apustu modalitateak ***Elkarrekiko Kiroljokoa apustu modalitateak*** gehigarrian deskribatzen dira.

4. Kapituluua: ELKARREKIKO APUSTUEN GAUZATZEA

"KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n Elkarrekiko Apustuak gauzatzeko, apustu egin nahi den Elkarrekiko Apustuaren modalitatearen barruan dauden lehietako pronostikoak hautatu behar dira. Apustuari dagokion diru-kopurua ordaintzen da eta, behin balioztatuta, sistemak apustuaren ordain-agiria jaulkitzen du.

Tele Apostuak-ek dauden modalitateen ezaugarriak aldatzeko eta, besterik gabe, "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n Elkarrekiko apustu modalitateetako ezaugarri propioak publikatuta Elkarrekiko apustu modalitate berriak eskaintzeko eskubidea gordetzen du beretzat.

5. Kapitulua: ELKARREKIKO APUSTUETAKO MUGAK

Elkarrekiko apustu bakoitzeko gehienezko diru-kopurua ezini zango da 100 euro baino handiagoa izan, ez eta euro 1 baino baxuagoa.

Ez dira euro 1 baino sari baxuagoak banatuko, ez eta euro 1 baino handiagoak diren sarien zentimoei dagozkien frakzioak ere. Arrazoi hauengatik banatu gabe geratzen den Funts Banagarriaren zenbatekoa Elkarrekiko Apustu modalitate berbereko beste sariketetako 1. mailako funtsen zenbatekoa handitzeko erabiliko da.

Elkarrekiko apustuen gauzatzea eta balioztatzea sariketaren barne dauden aurreneko lehia hasi aurretik amaituko da.